

Manifestaziora deitu dute Asuncion klinikako langileek eta herritarrek

Asuncion klinikako kudeaketa salatu eta Tolosaldean kalitatezko osasun arreta publikoa eskatzeko larunbatean manifestaziora deitu dituzte herritarrek, 12:30ean, Tolosako Plaza Zaharretik abiatuta; ELA eta LAB sindikatuek bat egin dute deialdiarekin, eta «kudeaketa txarra» salatu dute //3



Tolosaldeko hainbat herritar eta Asuncion klinikako langile batzuk, atzo manifestazioa deitzeko eginiko agerraldian. IRATISAIZAR

Ohiko jardunari ekingo dio bihar Asuncion klinikak

Astelehenetik kutsatu berri gehiago atzeman ez dituztela, eta kontrolatutzat jo dute pasa den astean hasitako agerraldia //3

Anoetako gaztetxoei zuzendutako gune berriak gaur zabalduko ditu ateak

DBHko lehen, bigarren eta hirugarren mailako herriko gazteek erabili ahal izango dute gaztelekua; asteazkenetik igandera bitarte egongo da irekita, arratsaldeetan //5

«Nire helburua 400 kiloko mugara iristea da»

JON MALBADI
PISU-JASOTZAILEA

Tolosarrak Espainiako marka ezarri berri du pisu hila modalitatean, 370 kilo igoz; lehen aldiz hartu du parte lehiaketa ofizial batean //7



TOLOSALDEA GARATZEN

«Lanerako moduak erabat aldatu arren, ondo eta azkar moldatu dira enpresak»

AIMAR ARZELUS TELLERIA
TOLOSALDEA GARATZENENKO ENPRESA
SAILEKO ARDURADUNA

Hilaren 19tik 23ra, era guztietako enpresei zuzendutako doako hamar ikastaro izango dira, 'online' nahiz presentzialki; izena aurrez ematea eskatzen dute antolatzaileek

Josu Artutxa Dorronsoro

Egungo testuingurua kontuan izanik, IKT Astearen 12. edizioa oso berezia izatea aurreikusten dute antolatzaileek. Aimar Arzelusen (1987, Donostia) esanetan, koronabirusak enpresetan izandako eragina aztertu eta utzitako ondorioak leuntzen saiatuko dira formazio-saioetan.

Zein helburu izango du aurtengo IKT Asteak?

Edozein enpresari gaur egun dauden tresnen desberdintasunak eta enpresa bera kudeatzeko modu berriak mahai gainean eta eskuragarri jartzea oso garrantzitsua da, hainbat aspektutan hobetzen laguntzeko, hala nola, merkatu berriak irekitzeko, komunikazioa hobetzeko eta prozesuak automatizatzeko, baita enpresak mehatxu teknologikoetatik babesteko ere. Teknologia arloan enpresak zenbat eta gartuago egon, efizienteagoak izate-

ko eta ongi funtzionatzeko aukera gehiago izango dituzte.

Teknologiaren garapena ere nabaritu da enpresetan ezta?

Dudarik gabe. Duela hamabi urte, oso bestelakoa zen enpresen egoera edo abiapuntua, beste irtenbiderik izan ez dutelako, eta konpetentzien ondoan atzean ez geratzeko. Emaizta aldetik onurak ekartzen dituela ere ikusi da. Gure kasuan, formazio-saioetan tresna digitalen bidez bezeroekiko harremana nola gauzatu jorratuko dugu, modu erraz eta azkarrean aplikatu daitezkeen tresnen bidez.

Zein motatako enpresariak izango dituzue saioetan?

Mota eta tamaina askotako enpresak izan daitezke, baina eskualdeko industria-sarea kontuan izanda, gehienak enpresa txiki eta ertainak izango dira. Sektore aldetik, edozein sektoreko enpresak hurbilduko dira. Gainera, sektoreka eta eguneko

gaiaren arabera banatuko dira saioak: goizean, industria arlokoak; eguerdian, komertzio txikiari zuzendutakoak; eta arratsaldean, ostalaritzari eta turismoari begirakoak.

Zein gai jorratuko dira lau sektore horiekin?

Esate baterako, ostalaritza eta turismo sektoreetako enpresariekin QR kodeen erabilera landuko da, egun ezinezkoa baita esku-orriak bezeroekin partekatzea, kutsatze-arriskuak ekiditeko. Sare sozialen kudeaketa eta erabilera ere irakatsiko da, aurreantzean geroz eta garrantzi handiagoa hartuko duelako. Merkatariek, berri, internetek eman ditzakeen onurak nola probestu ikasi ahal izango dute.

Eskualdeko enpresen kasuan, nola eragin du COVID-19ak?

Dudarik gabe, enpresen eta bezeroen arteko harremanak mantentzeko modua aldatu da. Enpresek ere ezohiko egoerara egokitzeko beharra aurkitu dute, bere alderdi on eta txarrekin. Hala ere, azken hilabeteetan lan handia egin da. Lanerako moduak erabat aldatu arren, ondo eta azkar moldatu dira enpresak, eta ekoizpenak kalitatezkoa izaten jarraitu du. Hortaz, lan egiteko eredu tradizionala IKT-ek eskaintutako aukera berriekin uztartzen jakin behar dugu, emaitzak positiboak direlako.



Duela gutxi, Oria ibaiak Armeria plaza inguruan zuen itxura. EGUZKI

Tolosako Udalaren «axolagabekeria» salatu du Eguzki talde ekologistak

Tolosako Armeria plaza inguruko egoera ikusirik, «Oria ibaira zabor ugari botatzen dela, eta ez direla hori ekiditeko neurriak hartzen» azaldu du

Erredakzioa

Tolosako Armeria plazan, burdinazko zubiaren ondoan, Oria ibaira zabor ugari botatzen dela salatu du Eguzki talde ekologistak. «Hori aspalditxotik dakigu bai guk, baita udalak ere». Hala, zaborrak ibaira botatzea erabat debekatuta dagoela gogoratu dute, «ingurumenari zein osasun-baldintzei kalte egiten dietelako, eta arau-hauste larritzat jotzen da». Azaldu dutenez, udalari «behin baino gehiagotan» helarazi diote bertako egoeraren inguruan duten «kezka», disuasio-neurriak har ditzan. «Baina ez du ezer egin, eta botatakoa ere ez du garbitzen», adierazi dute.

Ildo horretatik, iazko martxoan zubiaren inguruan egindako ekintza gogoratu dute: «hainbat kilo zabor bildu ziren, egoera salatzeko». 2020ko otsailekoa ere ekarri dute gogora: «Euriteen ondorioz Oriak ur handia zekarren eta itsasoko bidean herrestan eraman zuen bertan pilatutako zaborra, besteak beste, alde zurretik inork jaso ez zuelako».

Hala, urriko lehen egunetako euriteek utzitakoa azaldu dute. «Zorionez, oraingoan ez da otsailean gertatu zena pasa, eta zaborrak ez zuen itsasorako bidea

hartu, baina, zabor pilaketa handia zegoen orduan ere». Eguzkitik esan dutenez, «Uraren Euskal Agentzian jarri behar izan da salaketa, eta azkenean, udalak jasoko du zabor pila hori». Baina, gehitu dutenez, «Ura agentziak berak gogorarazi beharko lioke udalari zeintzuk diren bere betebeharrak alor honetan».

Zabor horiek horrela ikusteak «etsipena ez ezik, beldurra ere» sortzen dio Eguzkiri. «Egoera honek, gure ibaietan zer gertatzen ari den ulertzeko aukera ematen digu. Udalak hori eragotzi beharko luke; behartuta dago hori konpontzera, nahikoa bitarteko ditu, baina antza denez ez dio axola», adierazi dute.

Ondorioz, taldearen hitzetan, «Armeria plazak oso argi uzten du udalak ez duela zilegitasunik ibaiaren zaintzearen garrantziaz hitz egiteko, ez kontzientziez, ez hezkuntzaz, ezta sentsibilizazioaz ere. Bere erantzukizuna beste batzuen bizkar uzten du udalak, besteek konpromisoa eskatzen baitie, baina berak ez du horrelakorik erakusten». Era berean, gogoratu dute 2017an 2.000 izokin-kume baino gehiago askatu zirela inguru horretan, «espezia ugaltzeko inguru egokia den seinale».

89 positibo atzeman dituzte ostiraletik astelehenera

Erredakzioa

Osasun sailak emandako datuen arabera, ostiralean 10.261 PCR proba egin ziren, eta horietatik, 584 (%5,7) izan ziren positiboak, 236 Gipuzkoan, eta 33 Tolosaldean. Larunbatean, 9.939 PCR proba egin zituzten, eta 584 (%5,9) izan ziren positiboak, 255 Gipuzkoan, eta 31 Tolosaldean. Igan-dean, 6.870 PCR egin zituzten, 363 (%5,3) izan ziren positiboak, 150 Gipuzkoan, eta 17 Tolosaldean. Astelehenean, 6.763 proba egin zituzten, eta, horietatik, 529 (%7,8) positiboak izan ziren, 224 Gipuzkoan, eta 8 Tolosaldean.

Tolosaldeko 16 herritan atzeman dituzte positiboak: Adu-nan, Abaltzisketan, Alkizan, As-teasun, Berastegin, Bidania-Goiatzen, Ikaztegietan eta Zizurkilen bana, Berrobin eta Iruran bina, Alegian lau, Amez-kean eta Amasa-Villabonan bosna, Anoetan eta Ibarran ha-marna eta Tolosan 43. Ospitalee-tako egoerari dagokionez, 16 per-tsona ospitaleratu ziren astele-henean, eta COVID-19a duten 52 pertsona daude ZIU-n.

Asuncion klinikak bihar ekingo dio ohiko jardunari

Erredakzioa Tolosa

Asuncion klinikatik esan dute-nez, astelehenetik kutsatu berri gehiago atzeman ez dituztenez, kontrolatutzat jo dute pasa den astean hasitako agerraldia. Hala, egoerak egonkor jarraitzen badu bihar bertan ohiko jardunari ekingo diotela esan dute. Ondorioz, kirurgiak berraktibatuko dira, eta urgentziaz bertaraten direnak ere artatuak izango dira.

Bestalde, «pazienteen nahiz langileen segurtasuna bermatze aldera», klinika desinfektatzeko lanak hasi zituzten atzo. Bisitei dagokienez, murriztuta jarraituko dute, eta datozen lau asteetan zentroko langile guztiei zazpi egunetik behin PCR proba egingo zaie.

Asuncioneko egoera salatzeke kalera aterako dira larunbatean

Tolosaldeko herritarrek eta Asuncion Klinikako langileek osasun arreta publikoa izatea eskatu dute; larunbatean, 12:30ean, manifestazioa egingo dute

Irati Saizar Artola Tolosa

«Ez gaude gehiago jasateko prest», adierazi du Ainhoa Ortiz Asuncion Klinikako langileak, langile guztien izenean. Tolosaldeko herritar eta Asuncioneko langileek agerraldia egin dute Asuncion Klinikako kudeaketa salatu eta Tolosaldean kalitatezko osasun arreta publikoa eskatzeko. Larunbatean manifestazioa antolatu dute, 12:30ean, Plaza Zaharretik abiatuta, osasun publikoaren aldeko aldarria egiteko. Era berean, gaur arratsaldean babes argazki masiboa ateratzeko deia ere zabaldu zuten, Zerkausian, 18:00etan. Eragileei atxikipena eskatu diete eta *osasunpublikoatolosaldean@gmail.com* helbidera idazteko eskatu dute.

Asuncion Klinikaren langile gutxi daudela salatu dute, «gutxi-egi». «Gure aldetik dena ematen ari gara, baina baliabide pertsonal eta material faltekin eragin zuzena dute», gaineratu du Ortizek. Horregatik zabaldu dela langileen artean birusa eta horregatik itxi behar izan dutela klinika esan dute: «Ez ditugu maskara egokiak izan orain arte, ezta babes neurriak ere».

Inma Arroyo Asuncioneko eri-



Tolosaldeko hainbat herritar eta Asuncioneko langile batzuk, atzo eguerdian egindako agerraldian. I. SAIZAR

zainak salatu duenez, ekainean, alarma egoera kendu zutenean, langile askoz gutxiago geratu ziren berriro ere lanean eta orain «beharrezkoak» dituzte. «Langile gutxiago gaudenez, zerbitzu ezberdinetako langileak mugitzen gabiltza eta protokoloak dioenez, langileen mugikortasunak mugatuta egon beharko luke».

Dituzten lan baldintza «txar-rron» ondorioa dela uste dute. Neurri berean, interes ekonomi-

koak osasun arretaren gainetik jartzearen ondorio ere badela esan dute: «Jabeen helburua osasun arreta baino, irabazi ekonomikoak dira».

Asuncion Klinika konfinatu izana ez dela kasualitatea azaldu du Aitziber Sagredo Asuncion Klinikako langileak: «Ez da kasualitatea konfinatze hau Tolosaldean eta Asuncionen gertatu izana, beste eskualdeetan ez bezala, hemen ospitale pribatu bat da arreta zerbitzua eskaintzen

duena eta horrek zuzeneko eragina izan du».

Egoera honen aurrean klinika-ko zuzendaritzak ospitaleratzea eskatzen duten kasuak Bidasoa-ko Eskualdeko Ospitalera bideratzea erabaki du eta langile eta herritarrek Osasun Sailari eskatu diote Irurera bidali beharrean Donostiako Ospitalera bidaltzeko. Argi dute irtenbidea zein den: «Eskualde honetako irtenbidea osasun arreta publikoa da, ehuneko ehunetan publikoa».

Klinikaren kudeaketa «txarra» salatu dute ELAk eta LABek

I.S.A.

ELA eta LAB sindikatuen ustez, Asuncion klinikako zuzendaritzak ez du ondo kudeatu bertan eman den agerraldia. Eskualdeko ospitale publikoa behar duela aldarrikatu dute biek.

ELAk nabarmendu du 41 kutsatu daudela eta gehienak lanean kutsatu diren langileak direla. 35 dira kutsatutako langileak eta 6 pazienteak. Horiek horrela, pazienteen banaketa ez dela ondo egiten esan du: «positibo eman dutenak eta negatibo direnak planta berean daude eta agerraldi

kasu honetan ere ez da aldaketarik egon». Langileei dagokienez, lan txanda bakoitzean positibo diren eta ez diren pazienteekin lan egiten dutela salatu du. Ez direla PCR proba nahikorik egin esan du ere, izan ere, langileei martxoan egin zieten lehen odol analisisa sindikatuaren hitzetan eta orain arte ez diete PCR probarik egin, «ezta paziente positiboekin lanean aritzen direnei ere. Are gehiago, oportunitate bueltatu diren langileak ere inongo probarik egin gabe hasi dira lanean».

LABek ere esan du kutsatuta eta kutsatu gabe dauden gune-

ak nahastuta daudela: «Ez dituzte jarri langileek kutsadura saihesteko behar adina gune. Aldagelak ez dira berezitu eta kutsatuak eta kutsaturik ez daudenak batera daude». LABek gogoratu du era berean, langileek salatu izan dutela ez zeudela nahikoa NBERik (Norbera Babesteko Ekipamendua).

Langileei PCR probak egin ostean emaitza 24 ordutara jaso dutela, eta tarte horretan positiboak ziren langileak lanean egon direla ere salatu du ELAk. «Bisiten eta pazienteen sarrera eta irteeratan ere nahikoa kontrol ez dago, asko-

tan pazienteen bisitetako protokoloak ez baitira betetzen». LABek ere salatu du sintomak ziztuztenak besterik ez zituztela konfinatu eta orain bizi duten egoerara iritsi direla horregatik. Ospitaleratze bat dagoenean azterketa azkar bat egiteaz gain, paziente hori PCR proba egin arte isolatu behar dela uste du sindikatu abertzaleak.

Egoera honek guztiak langileengan izaten ari den eragina azpimarratu nahi izan du LABek: «Osasun fisikoa ez ezik, eragin psikologikoa izugarria da». Horregatik eskatu du beharrezko lanpostu guztiak indartzea «langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko».

Bi sindikatuek bat egin dute Tolosaldeko herritarrek eta Asuncioneko langileek larunbaterako deitu duten mobilizazioarekin.

Kultura sailak ikastaro aukera zabala antolatu du udazkenerako

Amasa-Villabonako Udalak antolatutako ikastaroetan izen emateko epea gaur bukatuko da eta osasun egoerak horrela eskatuta telematikoki egin beharko da udaleko webgunean

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udaleko Kultura sailak haurrentzat zein helduentzat, ikastaro eskaintza zabala antolatu du aurtengo udazkenerako. Guztira, 10 ikastaro daude aukeran, urte osoko 8 ikastaro eta 2 ikastaro labur.

Helduentzako urte osoko ikastaroen artean daude arte aplikatuak, egur lanketa eta pintura ikastaroak, azken hau 13 urtetik gorakoentzat. Ikastaro laburren artean, aldiz, serigrafia edota mindfulness. Haurrei dagokienean, hauek ere eskaintza zabala dute aukeran: funky (11-16 urte), balleta (6-12 urte), clowna (8-12 urte), eskulanak (6-10 urte) eta pintura (4-12 urte).

ABENDURA ARTE

Osasun egoerak horrela eskatuta, urte osoko ikastaroak Eguberrietako oporrak bitarte eskainiko dira. Abenduaren erdialdean, momentuko osasun egoera baloratu du udalak eta egoki ikusiz gero, ekainera arte luzatu ahal izango ditu ikastaroak. Dena den, abenduaren erdialdera Amasa-Villabonako udaleko Kultura saila harremanetan jarriko da ikastaro bakoitzeko ikasleekin eta jarraitzeko interesa



Garazi Bengoetxea kultura zinegotzia eta Joxean Cubero teknikaria. ATARIA

duten edo ez galdetuko die. Aurrrera egitea erabakiz gero, urtariletik abendurako kuota kobratuko zaie ikastaroetako parte hartzaileei.

IZEN EMATE TELEMATIKOA

Herritarren Arretarako Zerbitzuan pilaketak saihesteko asmoz, ikastaroetan interesa dutenek, izena telematikoki ematea eskatu dute udaletik, www.villabona.eus webgunera sartuta. «Izen emate telematikoa egiteko arazorik baduzu eskatu laguntza lagunei edo senideei. Hala ere,

ezinezkoa bazaizu, Zuretzat Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan egin dezakezu, salbuespen gisa», esan dute udaletik. Gaur da izen emateko azken eguna. Ezinbestekoa izango da ikasle guztiek helbide elektroniko bat eta telefono mugikorreko zenbaki bat ematea. Ikastaroren bati buruzko galdera gehigarriren bat egin nahi izanez gero, kultura@villabona.eus helbidera mezu bat bidali daiteke telefono zenbaki batekin, eta udala jarriko da harremanetan galdera egin duen pertsonarekin.

Andoni Otegi Logroñoko espetxera lekualdatuko dute

LEABURU-TXARAMA // Espainia-ko Espetxe Erakundeek jakinarazi dutenez, sei euskal preso lekualdatuko dituzte. Antton Troitiño, Mikel Arrieta, Andoni Otegi eta Aitzol Murtua Soriora, Dueñasera eta Logroñora hurbilduko dituzte. Victor Franco eta Agustin Almaraz, berriz, Andaluziatik Madrilera mugituko dituzte. Jakinarazi dutenez, kartzelako legedia onartu dute presoek; Otegiaren kasuan, 2031n beteko litzuzke kondenaren hiru laurdenak.

Gureako saioetarako sarrerak 'online' eskuratu daitezke

AMASA-VILLABONA // Gurea aretoan eskainiko diren zinema eta ikuskizunetarako sarrerak www.villabona.eus atarian jarriko dira salgai. Prezioan %5eko kargua izango dute *online* eskuratutakoek. Bestalde, orain arte bezala, Gureako leihatilan ere egongo da sarrerak eskuratzeko aukera; emanaldia baino ordu-bete lehenago zabaltzen da.

Basalandare jangarrien inguruko ikastaroa egingo dute

ZIZURKIL // Fraisoro eskolak eskainiko du ikastaroa *online*. Urriaren 19, 21, 26 eta 28an eskainiko da eta 6 orduko iraupena izango du. Clara Gutierrez izango da irakaslea. Matrikulak 40 euro balio ditu eta fraisoro@fraisoroeskola.eus helbidean edo 943 69 21 66 telefonoan izango dute interesatuek informazio gehiago.

Ostirala arte eman daiteke izena kultur lantegietan

IBARRA // Kultur lantegietako izen-emate epea zabaltzea erabaki dute. Udalak azaldu duenez, eskulanen tailerra bete da, baina gainerako ikastaroetan tokia dago oraindik eta horregatik hartu dute erabakia. Pinturan, sabel dantzetako sakontzean, ehozirien bi ikastaroetan eta Altzarien zaharberritzean eman daiteke izena. Izena *online* eman daiteke udalaren webgunean edota kultur etxera bertara gerturatuta.

100 musuko berrerabilgarri banatu dira ikasleen artean

AMASA-VILLABONA // Amasa-Villabonako Udalak musuko berrerabilgarriak banatu ditu 6 urtetik gorako herriko ikasleen artean, eta bide batez, ikasleen familiei laguntza xume bat eskaini. Era berean, udaleko langileen artean ere banatu ditu musukoak. *Berpiztu Amasa-Villabona* leloa daramate albo batean.

Ibilgailu elektrikoei eta mugikortasunari buruz ariko dira

LARRAUL // Energia Argitu programa iritsiko da azaroaren 17an Larraulera. Kultur etxean izango da saioa 18:00etan. Tailerlean parte hartzeko aurrez eman behar da izena 943 65 33 29 telefonoan edo argitu@gipuzkoa.eus helbidean. Mugikortasun jasangarriko eredu berriei buruz herritarrak informatzea izango da saioaren helburua.

GUTUNA

Arazoa sistema patriarkal, arrazista eta kapitalista da

Gizonek gizonentzako egituen ezleku batean, emakumeok otzan hezteko ahalaginak eta bi egiten ditu espetxe sistema patriarkalak. Hierarkikoki osaturiko instituzioan emakumeoi apurtu ditugun rola hausteagatik zigortzen gaituzte. Gure beharrak aintzat ez hartzeaz gain, gure errua dela ez konformatzea eta arazoa gu garela erakusarazten saiatzen dira etengabe. Espetxean jasaten

dugun isolamenduari, urruntze-ari... zigor areagotua erantsiz. Zapalketa bikoitza eta hirukoitza da emakume presoek eta preso amok jasaten duguna, espetxera ekarri gintuzten arrazoiei, ez «obeditzeagatik» ezartzen zaigun zigorra gehitzen baitzaio.

Horretarako espetxeko eguneroko bizitzan emakume presoek «gizarteratzeko», isolamendua apurtzeko ematen zaizkigun aukerak guztiz hetero-normatibo, sexista eta patriarkalak dira: garbitu, lisatu eta horrelakoak...

Barruan gure gorputzaren eta pentsaeraren kontrol saiakera

eguneroko ogia den bitartean, kanpoan gizarteak sozialki zigortzen gaitu eta ez gu bakarrik baita gure familiako emakumeak ere. Barrukoak familia lehenetsi ez dugulako kritikatuak, haurrik ez baditugu ez ditugulako eta badi-tugu utzi egin ditugulako. Denek dakite zer den ama ona izatea eta zer ez. Gure etxeak, berriz, emakume bezala guk hautatu dugunagatik zigortuak. Izan ere, ez baikara etxean gelditu familia zaintzeko eta hori gogoratu behar zaie, alaba txarrak garela. Ez dugula patriarkatuak esperotakoa bete!! Horrez gain, normal-

tzat jotzen da beraiek zaindu behar gaituztela, gure arropak pres-tatu, bidaiarako janaria bisitari-entzat prestatu edota astero mila-kilometro egin kristal batek banatuta ikusteko.

Espetxeek eta estatuek gure haurrak zigortzen dituzte gure haurrak izateagatik soilik eta kanpoan amatasun instituzio patriarkalarekin eta zigor sozialarekin topatzen gara. Horregatik, garaia da emakume* izateaz eta zaintza lanez hitz egiteko. Ikusi berri dugu koronabirus garaian ere krisiaren zama emakumeon-gan* erori dela eta ez dezagun

utzi kartzelaren zaintza zama ere gure gain gera dadin.

Utzi genituen etxeak, utzi genituen familiak, kendu zizkiguten haurrak... eta utzi genituen bel-durrak. Besteek zer esango dutenarenak, eta ariketa hori egin beharko genuke denok, zaintzan ari garenok eta bereziki gure gain zaintza lanak uzten dituzten horiek. Horretarako aukera, urriaren 14an Villabonako Mintzolan Lurgatz Talde Feministak antolatutako *Emakumea**, *Espetxea*, *Zaintza* mahai inguruan izango dugu.

Nekane Txapartegi Nieve



Gune ezberdinetan banatu dute Anoetako gaztelekua eta hemendik aurrera nerabeek erabakiko dute nola antolatu espazioa. J.M.

Gaur zabalduko ditu ateak Anoetako gaztelekuak; DBHko lehen, bigarren eta hirugarren mailan dabiltzan herriko gaztetxoek erabili ahal izango dute espazio berria

Heziketa gune berri bat Anoetan

Jon Miranda Anoeta

Iritsi da eguna. Gaur zabalduko ditu ateak Anoetako gaztelekuak. Hemendik aurrera asteazkenetik ostirale-ra egongo da irekita 17:00etatik 20:00etara, eta larunbata eta igandeetan, berriz, 16:00etatik 20:00etara. Espazioa prestatuta dago, baino gainerako guztia egiteke.

Iratxe Olano gazteria suspertzaila da Anoetan eta hezitzaile bezala ariko da gaztelekuan: «Gune ezberdinak prestatu ditugu. Badago egoteko txoko bat, eta beste bat sormenarena deitu dioguna. Eskulanetarako materiala jarri dugu bertan, gaztetxoek beren irudimena landu dezaten. Mahai eta aulkiak ere badaude eta aukera dago mahai jokoetan aritzeko edo etxeko lanak bertan egiteko. Nahiko hutsa dago oraindik, espazioa nola antolatu eta zertarako erabili gazteek erabaki beharko dute gaurtik aurrera».

Hasiera batean, Lehen Hezikuntzako bosgarren mailatik DBHko laugarren mailara bitar-



Udan antolatutako egitarauaren barruan gazteek beraiek egin zituzten eserlekuak jarri dituzte gaztelekuan. J.M.

teko gazteentzat zegoen pentsatuta gaztelekua, baina COVID-19agatik ezarrita dauden arauak jarraituz, jende gutxiago egon ahal izango da aldi berean espazio horretan: 14 gazte eta hezitzailea. Telematikoki izena emateko aukera eman zitzaien DBHko lehen, bigarren eta hirugarren mailatan dabiltzan ikasleei eta 60 bat gazte animatu dira.

«Adin aniztasuna bermatzea gustatuko litzaiguke, baina osa-

sun egoerak ez du horretarako aukera ematen. Etortzen diren gazteek segurtasun neurriak bete beharko dituzte, sarrerakoan eskuak garbitu eta musukoa erabili beharko dute barruan daudela», esan du Olanok. Asteazkenetan DBHko lehenengo mailakoak, ostegunetan DBHko bigarren mailakoak eta ostiraletan DBHko hirugarren mailakoak egongo dira gaztelekuan; Larunbatetan, berriz, 16:00etatik 18:00etara le-

henengo mailakoen txanda izango da eta 18:00etatik 20:00etara bigarren mailakoena; Hirugarren mailakoek, aldiz, igandetan erabili ahal izango dute gaztelekua.

Eguberrietan edota opor garaian ordutegi ezberdina izango du gaztelekuak eta bertan aritzen diren nerabeekin erabakiko da egun horietarako programazioa. «Nahiz eta gaztelekuko erabiltzaile ez izan, udaletik Haur Hezikuntzan eta Lehen Hezikun-

tzan dabiltzan umeentzat ekin-tzak antolatuko dira oporraldian eta gaztelekuko espazioa baliatuko dugu tailerrak edo bestelako emanaldiak antolatzeko».

NERABEEKIN LANKIDETZAN

Gaztelekuak gazteen interesei erantzungo diela nabarmendu du Olanok. «Lasai egoteko espazio bat izatea gustatuko litzaideke. Azken batean, gazteak eskolan zazpi ordu pasatzetik datoz hona eta merezi dute eroso ego-

Telematikoki 60 nerabek eman dute izena gaztelekuan eta txandaka antolatuko dira mailaren arabera

teko gune bat. Hala ere, nahiz eta hezkuntza formaleko espazio bat ez izan, pentsatzen dugu gaztelekua badela heziketa gune bat. Nik hezitzaile bezala zuzeneko harremana izango dut gazteekin eta beharrezkoa bada esku hartzeak egingo ditut, baina komunitate guztia inplikatu nahi nuke gure nerabeen heziketan».

Anoetako Gazte Asanbladako eta Matrakako gazte talde feministako kideek eman diote baiezkua Olanori eta prest agertu dira nerabeekin batera esperientziak partekatzeke. «Hiru hilez behin gai batzuen lanketa egitea proposatuko diet gazteei. Gai horietako bat sexualitatea da. Emozioak lantzeko bidea ematen du gaiak eta jakin nahi dut nola sentitzen diren gazteak. Uste dut koronabirusaren garai hauek eragin handia dutela emozioetan. Harremanak eraikitzen diren garaia da nerabearoa eta iruditzen zait garrantzitsua dela gazteei bestelako erreferentziak ematea, telebista eta filmetan agertzen denaz aparte». Sexualitateaz gain, aisialdi eredua eta herri izaera landu nahi ditu hezitzaileak gaztelekura hurbiltzen direnekin: «Herriko festetan izaten da ume eta gazteen egun bat. Udalak egun horretako egitaraua erabaki beharrean, nerabeek beraiek erabakitzea da proposatzen dieguna».

Ideiak asko izan arren, bidea nerabeekin batera egin nahi dutela azpimarratu du Olanok. Gaztelekua euren erara egokitzea izango da lehenengo pausoa. Uztailan antolatu zuten programazioaren barruan, gaztelekurako eserlekuak prestatu zituzten horretarako paleak erabilita eta udal brigadako langile baten azalpenak jarraituta. «Hori izango da bidea», esan du Olanok. «Nerabeek euren neurria eta euren interesen arabera eraiki dezaten gaztelekua».

Nafarroako 385 txotxongilo Topic zentroan

Retablo de Figurillas konpainiaren funtsa jaso zuen iaz eta Tolosan daude gordeta; martxoan zabalduko duten erakusketan ikusi ahal izango dira

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Urteurren berezia ospatzen ari da Tolosako Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa. Duela 10 urte inauguratu zen egoitza, eta 10 urte hauetan etengabe hazten joan da. Horren erakusgarri, Nafarroako Gobernuarekin egindako harremana. Izan ere, 2021eko martxoan, Txotxongiloen Nazioarteko Egunaren baitan irekiko den erakusketa baterako zenbait txotxongilo utzi ditu Tolosako museoa.

Iaz, Retablo de Figurillas txotxongilo konpainiaren funtsa jaso zuen dohaintzan Nafarroako Gobernuak, Faro-Bueno familiakoa, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordetzen den dokumentalaren zatia.

Orotara, 385 txotxongilo eta dokumentalak ez diren beste objektu eszenografiko batzuk dira. Topic-en gorde eta erakutsiko dira, Foru Gobernuaren aldi baterako lagapenaren bidez. Lau urterako utzi dira, baina beste lau urtera luza daiteke egonaldia.

Erakusketa martxan jarri aurretik, pasa den astean, museoa bisitatzen eta Nafarroatik ekarri-

tako piezak ikuskatzen izan ziren zenbait ordezkari. Ignacio Apeztegia Vianako Printzea Kultur Erakundeko zuzendari nagusia, Joaquim Llanso Nafarroako Gobernuako Artxibo eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko zuzendaria, Andoni Iturbe Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburordea, Idoya Otegi eta Maria San Sebastian museoko arduradunak, Olatz Peon Tolosako alkatea eta Izarne Iglesias Kultura zinegotzia izan ziren bertan.

Museoko arduradunek, zentroaren barrunbeak erakutsi zizkieten bisitariei, eta besteak beste, museoa dauden zenbait txotxongilo ikusteko aukera izan zuten, hala nola, Mariona (Topic museoko zaintzailea), Cojuelo deabrua eta Rosa (Portugalgo garaiko bi txotxongilo), Animalien inauteriaren hezurdura eta garezurra, eta ageriko biltegian dauden Escenas Sanfermineras eta San Fermin.

BESTE BAT, OKENDON

Pasa den ostiralean, erakusketa berri baten aurkezpena egin zuten Donostiako Okendo Kultur Etxean. Hain justu, Gipuzkoako hiriburuko Fantasiako eta Belurrezko Zinemaren Asterako




Nafarroako Gobernuako ordezkariak izan ziren Topic-en. ATARIA

Alegiazko izakiak/Seres fantasticos erakusketa diseinatu dute Topic museoko arduradunek. Azaroaren 9ra arte egongo da zabalik 80 txotxongilo biltzen dituen esposizioa. «Horietako er-

diak ez dira inoiz erakutsi eta lehenengo aldiz atera dira Topic-eko biltegietatik, gizartean aurkezteko irrikaz, museoko pieza gisa» adierazi dute museoko ordezkariak.

Ameztoyren obra bat eskuratu du udalak



Udalak eskuratutako obra. ATARIA

Erredakzioa Amasa-Villabona

Vicente Ameztoy artista billabonatarren artelan bat eskuratu du udalak eta udaletxeko batzar aretoan ezarri du, aurrerantzean bertan ikusgai egon dadin.

Udalak 500 euroko inbertsioa egin du artelanaren jabetza eskuratzeko eta artistaren alabak, Virginia Ameztoyek egin du artelanaren entrega, ziurtagiri ofizialarekin batera. Udal gobernuak ekimen hau babestu du, «kulturan inbertitzea etorkizunean inbertitzea» dela iritzien diolako.

Artelanak ez du izenbururik (Ameztoy-ren artelan ia denek bezala) eta Baroja Collet-ek egindako krema koloreko paper gaineko grabatu bat da. Lanak artistaren koadro baten detaile bat irudikatzen du; Vicentek 1974an plantxa bat egin zuen, aipatutako detailearen irudiarekin, eta orain, Bilboko Arte Ederretako Museoko erakusketa izan dela aprobetxatuz, familiak grabatu horren 50 kopiako edizio bat egiteko eskatu dio aipatutako Baroja-Collet-i, zenbaki erromatarretan zenbakitutako beste sorta txiki batez gain.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Imanol Garcia Landa Tolosa

Jon Malbadik (Tolosa, 1991) Espainiako marka egin berri du pisu hila modalitatean, kategoria guztiak kontuan hartuta. 370 kilo igo ditu lurretik belaunen gaineraino, eta horrez gain, bere lehen lehiaketa ofizialean egin du marka. WRPf elkarteak Collbato (Katalunia) herrian antolatutako Drums of War II 2020 proban egin du marka eta bertako txapelduna izan zen pisu hila modalitatean.

Lehenengo aldiz txapelketa batera joan eta marka lortu duzu.

Hiru edo lau elkarte daude torneoa antolatzen dituztenak, eta elkarte guztiak kontuan hartuta da marka. Nik 125 kilo azpiko kategorian parte hartu nuen, baina egindako 370 kiloko markak edozein pisuko kirolarik egindakoa gainditu du. Marka egin nuen 124 kilo pisatzen nituen. Aurreko marka 350 kilokoa zen, eta 160 kilo inguru pisatzen zituena marka egileak.

Zer suposatzen du zuretzat?

Aurretik banekien ze marka zuden, eta entrenamenduetan ikusi baduzu marka horiek egin ditzakezula, aurreikuspen batzuekin joaten zara. Egindako markaz ez nintzen asko harritu, joan aurretik aukera hori bazeagoela ikusten nuelako. Noski, pozik nago marka egitea lortu nuelako. Azken finean ez delako gauza bera marka bat egitea zure gimnasioan, edo gero txapelketa batera joan eta han egitea. Urdu-ritasunak-eta hor daude, eta horiek onerako edo txarrerako eragiten dute lehiaketa batean. Kasu honetan, espero bezala aterazen.

Torneoa bera nola joan zen?

Torneoaren aurretik, pisaketa izaten denean, zenbat kilorekin hasiko zaren esaten duzu. 330 kilorekin hasiko nintzela azaldu nuen nik. Lehen kontaktu bezala erabili nuen, hau da, epaileekin konfiantza hartzeko eta dena ondo egiten nuela baieztatzeko. Hainbat arau daude, eta zuk uste baduzu ere ondo egiten ari zarela, agian epaileek altxaldia balio gabetu egiten dizute. Gero, eskatu nuen 352,5 kilo altxatzea, dagoeneko errekor absolutua izango zena. Hori altxatu nuen, eta hirugarren aukeran eskatu nuen 362,5 kilo altxatzea. Hori lortuta, beste laugarren aukera bat eman zidaten eta hor igo nituen 370 kiloak.

Lehenengo aldia izanik proba batean parte hartzen zenuela, nola sentitu zinen?

Hasieran nahiko lasai nengoen,



ATARIA

«Ea posible dudan 400 kiloko mugara iristea; hori da nire helburua»

JON MALBADI PISU-JASOTZAILEA

Gimnasioan egiten zituen markak lehiaketa batean berretsi ditu, eta Espainiako pisu hila probaren marka ezarri du tolosarrak. 370 kilo altxatzeko gai izan da, eta aurrera begira beste erronka batzuk jarri dizkio bere buruari.

espero baino lasaiago. Behin marka lortuta, oso pozik.

Eta jendea ez zen harritu lehen aldiz lehiaketa batean parte hartzen zuenak marka absolutua apurtzea?

Gaur egun badakizu sare sozialek nola funtzionatzen duten. Instagrametik-eta jende askok ezagutzen ninduen, gimnasioan egindakoak igo izan ditudalako. Jende guztiak zoriondu ninduen, harrituta zegoenik ere izan zen, eta hitz onak eta animoak jaso nituen. Kontua da

gimnasioan egiten direnak ez dutela marka bezala balio. Hori lehiaketa ofizial batean erakutsi behar da, eta lortu nuen.

Aurrera begira ze asmo dituzu?

Ikusten baduzu zerbaitetan ondo aritzen zarela, asmoa segitzea da. Ea posible dudan 400 kiloko mugara iristea. Hori izango litzateke nire helburua. Gustatuko litzaidake ahal den azkarren saiatzea ere. Datorren urtean aukera badut, primeran, bestela hurrengoan.

Eta hurrengo lehiaketa edo torneo noiz izango zenuke?

Egutegia ateratzen duten arte ez dakizu noiz izango den. Eta, gero, data horretarako prest egotea da kontua. Bestalde, ez garez honetaz bizi, nahiago ditut gauzak lasai hartu eta nire burua prest ikusten dudanean saiatu. Ez dut gehiegi behartu nahi. Honen ez digu jaten ematen, eta ez digu sekula emango, beraz, nire burua gehiegi presionatzea ere ez dut nahi.

Gimnasioan igo dituzu 370 kilo baino gehiago?

Parte hartu dudana txapelketa hori berez martxorako zegoen antolatuta, baina COVID-19a dela-eta atzeratu egin zen. Garai horretarako entrenamendu nahiko luzeak egin nituen, eta gehienez lortu nuena 380 kilo izan zen. Gero itxialdia etorri zen, gimnasio guztiak itxita zuden, eta orduan lau hilabete inguru entrenamendu espezifikorik egin gabe egon nintzen.

Orain berriz ere hartu dudanean, bere garaian egin nuenetik hamar kilora iritsi naiz.

Europa mailako torneoaren batera joatea pentsatzen duzu?

Hartu daiteke kontuan aukera hori, baina ikusi behar duzu bertara joaterakoan ze maila duzun besteeikiko. Hara joan eta azkena geratzeko, ez zara joaten. Ez dut eskarmentu handia lehiaketetan, eta pauso hori emateko nahiko nuke eskarmentu pixka bat handiagoa izatea. Eta maila altuagoa hartuko banu eta ikusiko banu zer edo zer egin nezakeela, ikusiko nuke. Beti dago ilusio hori, horrelako esperientzia bat bizitzeko. Kontuan hartu behar da zenbait herrialdetan beste mentalitate bat dutela: Ukrainian, Errusian, Polonian... jendea 13 urterekin hasten da. Ni 19rekin hasi naizenez, urte askotako desabantaila dut. Herrialde horietan jendeak beste maila bat du.

Atzera begiratzuz, noiztik hasi zara pisu hila proban entrenatzen?

Gimnasioan orain hamar bat urte hasi nintzen, baina pisu hila entrenatzen bost urte inguru daramat. Kontuan izan behar da proba honetan lehiatzeko material berezia behar izaten dela. Hau da, barra berezi bat behar da, eta diskoak ohikoagoak baino finagoak izan behar dira, bestela ezin dituzu, esaterako, 300 kilotik gorako pisuak jarri barra batean, lekurik gabe geratzen zarelako.

Ni talde batean nago, Xthor Powerbuilding izenekoa, talde horrek Iruñean du gimnasioa, eta leku horretan dagoen lehiaketetako materiala oso leku gutxitan dago. Edozein kiroldegiko gimnasio batera joaten bazara, ez duzu material hori. Tolosan aritzen nintzen lehen, eta gero une batean Donostiako Belodromora joan nintzen, hango gimnasioan beste material mota bat zutelako. Gero zortea izan nuen, taldea ezagutzeko eta beraiekin entrenatzeko aukera izan nuelako, bestela ezinezkoa izango zen niretzat maila horretara iristea.

Orduan batez ere Iruñean aritzen zara entrenatzen?

Kontuan izan behar da nik hau *hobby* bezala hartzen dudala. Lagunak dauzkat gimnasio ezberdinetan eta, beraz, entrenatzera joaten naiz gimnasioetara eta baita lagunekin egotera ere. Beraz, Tolosan, Donostian eta Iruñean aritzen naiz, eta zehazki pisu hila entrenatu behar dudanean, orduan bai joan behar izaten dudala Iruñera.



ASTEAZKENA, 2020KO URRIAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Kalean emanaldiak antolatzen dituztenez, erronka bota du Hauspotuz Tolosaldeko trikiti elkarteak.

200 bideora iristeko erronka



Larraul eta Asteasu artean egin zuten martxoan Herria Hauspotuz eguna. JON MIRANDA

Erredakzioa

Hauspotuz Tolosaldeko trikiti elkarteak «egungo egoeratik emanaldirik antolatu ezin denez», trikitilariak bideoak grabatzera animatu ditu. Dagoeneko bideoak jasotzen hasiak direla esan dute, eta kopuru bat ere jarri dute jomugan: 200.

Hori da, hain justu, pasa den urtean elkartu zen trikitilari kopurua, eta horretara iristea da jarri duten erronka. «Pasa den urtean Hauspotuz Eguna antolatu genuen Tolosan, eta harrera oso ona izan zuen, 200 trikitilari eta trikitizale baino gehiago elkartu baikinen», azaldu du Manex Torrealda trikiti elkartearen kideak.

Arrakasta ikusita, aurtengo ere errepikatu asmo zuten Hauspotuz Eguna, baina, egungo egoeratik ez egitea erabaki dute: «Konturatu ginen zaila izango zela egitea, talde txikietan banatuta egitea ere pentsatu genuen, baina, azkenean ez egitea erabaki dugu», dio Torrealdaik.

Kalean, beraz, ez da jendetza elkartuko trikitiaren bueltan, baina, sarea erabili nahi dute topaketarako. «Gure asmoa da pasa den urteko kopuru horretara iristea sarean, eta horretarako trikitilarien bideoak partekatzea pentsatu genuen». Hori da, hain justu egin duten eskaria, panderoa edo soinuak joz 30 segundoko bideoa grabatzea, bakarka zein lagun artean, eta grabazio hori emailaz bidaltzea, *hauspotuztri-*

kitixa@gmail.com helbidera. Nahi duen orok parte hartu ahal du ekimenean, eta 200era iritsi arte izango dela horretarako aukera zehaztu dute: «Pixkana ari gara Tolosaldeko nahiz eskualdetik kanpoko trikitilarien bideoak jasotzen, dagoeneko 24 ditugu, eta horiek gure sare sozialetan ari gara partekatzen».

HERRIZ HERRIKO EKIMENA

Bestalde, martxoan, osasun krisiaren aurretik, Herria Hauspotuz ekimena antolatu zuen Hauspotuzek, Asteasu eta Larraul artean. Bada, Amezketa eta Abaltzisketa artean egin asmo zuten bigarrena, baina, hori ere momentuz bertan behera utzi behar izan dutela azaldu dute trikiti elkartetik.

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Bizi Nahi elkartearen irekiera. Ohiko ordutegiarekin irekita egongo da aurrerantzean Bizi Nahi elkartearen lokala. 11:00-12:45, astelehen, asteazken eta ostiralean.

Villabona. Mahai-ingurua Mintzolan, 19:00etan hasita. Ema-kumea* espetxea zaintza gaia jorratuko dute eta hizlariak ondorengoak izango dira: Esti Amenabarro Iraola, Maite Aranalde Ijurko, Esti Eizagirre Kerejeta, Maite Ortiz Garzia, Katia Reimberg eta Nekane Txapartegi Nieve. Lurgatz talde feministak antolatu du, eta alde aurretik izena eman beharko da: *lurgatztaldefeminista@gmail.com*.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearekin, kantu eskaintzak, agenda, eskualdeko albisteak.

15:00. Desafioa. Joxe Anjel Sarasolarekin herri kirolak.

16:00. Zebrabidea. Magazina

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ek gidatuta.

28 KANALA

11:00. Ajoarrieroa

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

12:00. Tapa Pala! Urola ibaia egin dako bidaia

17:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Urrutiajunbe (Izaro Garmendia eta Iban Zubeldia)

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro euritsua. Egun osoz zerua estalirik agertuko da eta euria mardul eta nahiko etengabe botako du. Tarteka zaparradak gogorak izango dira eta litro dezente pilatuko da. Ipar-mendebaldeko haizeak zakar joko du eta tenperaturak koskatxo bat behera egingo du, maximoa 11-12 graduan geratuz. Elur-mailak ere behera egingo du, eta 1.300 metrotik gora botatzen duena elurretan izango da.

Bihar. Giro kaxkarrarekin jarraituko dugu. Euri zaparradak egun osoz izango ditugu, indartsuago eta mardulago egunaren lehen zatian botako duelarik. Arratsaldean tartekatuko eta ahu-lago botako du euria. Haizeak iparraldetik ahu-lago joko du eta tenperatura ez da 12-13 gradutik pasako.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



zozketak

Atarikideentzat
Saski bat daukagu



Mahalako produktuez
osaturiko saski bat.

Atarikideentzat bi sarrera
ditugu

‘Gorria’ dantza
ikuskizunerako
bi sarrera.

Igandea, urriak 18, 19:30.
Gurea Antzokian
(Amasa-Villabona)



Atarikideentzat bi sarrera
ditugu

‘Viaje al final de la noche’
ikuskizunerako
bi sarrera.

Ostirala, urriak 16,
20:30. Leidor
Antzokian (Tolosa)



Atarikideentzat
bi sarrera ditugu

‘Rigoletto Opera Pantailan’
ikuskizunerako bi sarrera.



Asteartea, urriak 20, 20:00.
Gurea Antzokian (Amasa-Villabona)

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**